

B6

Ihar, ihar, lelorean lelo...

Poema hau Martin Lopez Bikuñaren eskuz idatzia da. Esku horren ohituraren arabera, lerro-banaketa araurik gabea da, eta, hortaz, hemen aurkeztu dugun lerro-banaketa erriman oinarriturik geuk asmatua da.

Dirudienez, Etura eta Audikana albo-herrien arteko liskar edo gorabeheraren batez dihardu: eturarrek zezen adargabea atera dute, eta alboko herriko audikarrek zezena kolpatu dute, isekaz, ia hil arte.

Ihar, lelorean lelo errepika ezagunaren aldaerarekin, herri-koplaren itxura du.

<1165v> Ihar, ihar, lelorean lelo,
 ihar, ihar, lelorean.¹
 Heturarroc² eguin³ dave
 cecen adarvaguea;
 audicarroc⁴ emun
 deusay⁵ golpea;

5

¹ *Ihar, ihar, lelorean lelo, / ihar, ihar, lelorean*: Dirudienez, esanahi zehatzik gabeko leloa da. Eskuizkribuko beste leku batean ere bada honen aldaera bat: *Itai lelo, ibai lelo, / echean aray leloa* (B32: 1-2). *OEHN* (s.v. *lelo*), beste hauek bildu dira: “*Lelo lirelo zaraileroba / yazoegia ninzan / aurtan erua / ai joat gabiraia / astor usua / lelo lirelo zaraileroba* (Cantar de Perucho, 1536). TAV 3.1.15. *Etai lelorigi bai lelo, leloa zarai leloa. / Heuskara da kanpora eta goazen oro danzara*. E 261 (v. tbn. 174). *Lelorigi sara y leloa, / Bilbaon katigu dago Salinasgoa* (Cantar del conde de Salinas, c. 1566)”.

lelorean: Eskuizkribuan *lelorea* dakarren arren, bi argudio dira *lelorean* transkribatzearen alde. Batetik, Martin Lopez Bikuñaren eskuak askotan uzten ditu idatzi gabe hitz bukaerako *-n* defektiboak (ikusi, hurrengo lerroan bertan, *egui[n]*). Bestetik, lelo honen beste aldaera ezagun batzuetan ere (cf. *infra*), iduri luke “*lelori* + kontsonantea” multzoaren azpian *lelorik* ablatiboa ezkututzen dela, hain zuzen *lelorean* honen ordaina.

² *Heturarroc*: Larreatik oso hurbil dago Etura herria (9 km gaurko errepidetik, lau zapabost kilometro menditik), eta Eturaren ondo-ondoan Audikana. Albo-herrietako kontuak aipatzen dira hemen, hortaz, Eturakoak baitira *heturarroc* eta Audikanakoak *audicarroc*.

³ *eguin*: ‘atera’; hemen *zezena egitea* ‘zezena ateratzea’ dela uste dugu.

⁴ *audicarroc*: ‘audikarrek, Audikanakoek’; jentilizio hau aurkitu dugu eskuizkribuko bazter-ohar batean ere: *Anacho Audicarra* (1171v).

⁵ *deusay*: ‘diote’. Martin Lopez Bikuñak erabiltzen duen *deutsae* adizkiaren ordaina da; Lazarragak, aldiz, *deutsae* erabiltzen du: *Traidoreac chu eguiten / deusae losabagueric* (A29: 111-112). Oñatiko eskuizkribuan ere biltzen dira *-ae* > *-ai* aldaketaren adibideak adizkietan: *daucai* ‘daukate’ (6v), *zarai* ‘zarete’ (4r), *etsain* ‘etsaen’ (69r), *deutsai* (101r).

ilgo vere vaven⁶
 vayaq eguiten,⁷ aren burlea.

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

izenb. Orrialdearen eskuineko zuriunean. Martin Lopez Bikuñaren eskuz idatzita dago. **1** lelorean] esk. *lelorea*. **2** lelorean] esk. *lelorea*. **3** Heturarroc] esk. *heturaroc*. || eguin] esk. *egui*. **4** cecen] esk. *cecē*, *-n* kontsonantearen ordezeko diakritikoarekin. **5** audicarroc] esk. *audicaroc*. || emun] eskuizkribuan ez da ondo irakurtzen. Hasierako *e*- letraren gainean idatzi da ondoko *-m-* (eta are ez da ziurra *-m-* ote den), eta ondorioz *mun* edo irakurtzen da, baina hor da, zalantzarik gabe, *e-* ere.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B6 – Ihar, ihar, lelorean lelo...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].

⁶ *ilgo vere vaven*: ‘hilgo zuten ere, hil ere egingo zuten’; adizkia *ilgo even* litzateke, ‘hilgo zuten’, iraganeko geroaldia beti perifrasi horren bidez adierazten baitu Lazarragak: *ichi ta joan cidin bere esera, nun asi çan bere erropaac contuz maleta baten sarçaen, cegaiti esan eusan ugaçabac ece biaramunean joango cireala euren viajera* (AL: 1144v-1145r); *joan cidin agana, confiaduric respuesta obea idoroco ebela agan arc Silverori emun eusan baño* (AL: 1152v). Bestalde, *ba-*, Lazarragaren eskuizkribuan, aditz aurreko hutsa da batzuetan, eta ez du nahitaez galdegaia markatzen.

⁷ *vayaq eguiten*: ‘iseka egiten, korrika eginarazteko’; cf. *DAut* s.v. *baya*: “Zumba, matraca, vexamen compuesto de palabras picantes y dichas con intención, y a fin de que otro se corra y avergüence”. Covarrubiasen definizioa are interesgarriagoa da, iseka egiten zitzaionaren atzetik joaten zela zehazten duelako, hain zuzen zezenaren atzetik joan ohi den bezala (*Covarrubias*, s.v. *baya*): “La matraca, el trato, el vexamen que dan a uno para hazerle correr, que vulgarmente se dize *dar la baya*. El vulgo piensa averse dicho de *vaya*, *vaya*; pero lo más cierto es ser vocablo italiano de *bayare*, que vale ladrar, porque al que siguen dándole matraca se puede comparar al perseguido de los perros que le van ladrando”. Gaztelaniaz *dar bayas* eta *dar la baya* erabiltzen da, *ez hacer bayas*, baina ez da ezohikoa gaztelaniaz *dar* aditza erabiltzen duten egiturak euskaraz *egin* aditzarekin egokitzea.



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago